



PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE BERASTEGI_TEXTO REFUNDIDO
BERASTEGIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA_TESTU BATERATUA

BERASTEGIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

Dokumentua

"H. IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA"



PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE BERASTEGI_TEXTO REFUNDIDO
BERASTEGIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA_TESTU BATERATUA

H. DOKUMENTUA. IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA

AURKIBIDEA

I.	SARRERA	1
II.	UDALAREN AURREKONTUAREN BIDERAGARRITASUNA: KONTZEPTUAK.	1
III.	2001-2008 EPEA.....	2
IV.	PLAN OROKORREAN AURREIKUSITAKO JARDUERA PUBLIKO NAGUSIAK (2010-2018)	2
V..	UDAL ADMINISTRAZIOAREN AHALMEN EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO ETORKIZUNEKO ANALISIA.	4



I. SARRERA

2/2006 Legea garatu eta osatzen duen 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua babesean, Berastegiko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren dokumentu honetan aurreikusitako jarduerak direla eta, Udal Ogasunaren iraunkortasun ekonomikoari buruzko dokumentu hau idazten da.

II. UDALAREN AURREKONTUAREN BIDERAGARRITASUNA: KONTZEPTUAK.

2010-2018 aldirako –orain hasten den Plangintza Orokorraren gutxi gorabeherako epea– adierazten diren hirigintzako helburuak lortzeko udal-altxortegiaren inbertsio-ereduaren jarraipena bermatu behar da. Horretarako, azken hamar urteetako gauzatze-aldiko esku-hartze mailaren alderatze-analitik abiatzen gara, Udalaren aurrekontu-bideragarritasunaren oinarriak finkatzeko modu prospektiboan balioko duen oinarritzko erreferentzia-maila ezartzeko.

II.1. Toki Administrazioaren sarreren atala honako kapitulu hauek osatzen dute:

- SARRERA ARRUNTA:

- I. KAPITULUA Zerga zuzenak.
- II. KAPITULUA Zeharkako zergak.
- III. KAPITULUA Tasak.
- IV. KAPITULUA Transferentzia arruntak.
- V. KAPITULUA Ondareari lotutako sarrerak.

- KAPITAL SARRERA:

- VI. KAPITULUA Inbertsioak besterentzea.
- VII. KAPITULUA Kapital-transferentziak.
- VIII. KAPITULUA Finantza-aktiboak.
- IX. KAPITULUA Finantza-pasiboak.

II.2. Toki Administrazioaren gastuen atala honako kapitulu hauek osatzen dute:

- GASTU ARRUNTA:

- I. KAPITULUA Langileentzako ordainsariak.
- II. KAPITULUA Ondasunen eta Zerbitzuen erosketa
- III. KAPITULUA GASTU ARRUNTA interesak.
- IV. KAPITULUA Transferentzia arruntak.
- V. KAPITULUA Erantsitako kredituak.

- KAPITAL GASTUA:

- VI. KAPITULUA Erantsitako kredituak-inbertsioak.
- VII. KAPITULUA Kapital-transferentziak.
- VIII. KAPITULUA Finantza-aktiboak.
- IX. KAPITULUA Finantza-pasiboak.

SARRERA ARRUNTAREN eta GASTU ARRUNTAREN arteko aldea, INBERTSIOEN kapitulari esleitzen zaion aurrekontu-tartea da.

Sarreren VII. kapituluaren arabera, hori gorantz zuzendu da, hau da, diru-laguntzak edo sarreren IX. kapituluak, hots, maileguak, kasu bakoitzaren arabera.



III. 2000-2009 EPEA BERASTEGI

	BERASTEGI
2000	325.453,36€
2001	637.156,91€
2002	668.688,91€
2003	433.731,52€
2004	359.916,01€
2005	807.605,98€
2006	80.817,33€
2007	1.376.256,42€
2008	467.990,46€
2009	638.627,36€
	5.796.244,26€

2000-2009 epeko inbertsioak guztira: 5.796.244,26€; urteko batez bestekoa 579.624,42 € da.

IV. PLAN OROKORREAN AURREIKUSITAKO JARDUERA PUBLIKO NAGUSIAK (2010-2018 ALDIA)

Jurisprudentziak adierazten duen moduan, eta plangintza orokorraren mailan, azterlan ekonomiko eta finantzarioa arduratzen da kasu honetan Berastegiko Hiria Antolatzeke Plan Orokorrean aurreikusten diren jardunen finantziazio-ildo nagusiak aurreikustez.

Dokumentu horrek, hain zuzen ere, ebalua dezake planaren proposamen nagusietako bakoitzaren inbertsio-kostua, proposamen horien bideragarritasuna finkatzearen. Inbertsioa erantzukizun publikoaren mende egongo da, baina ez da Udalaren erantzukizuna soilik izango, baizik eta lurralde-mailako elkarreragina eta eskumenak banatzeko elementu juridikoak eta politikoak ere hartu behar dira aintzat. Horrenbestez, Berastegiko udalerrirako interes eta eskumen publikoak bat egiten duten koordinazio-elementu bihurtu da Azterlan Ekonomiko eta Finantzarioa.

Azpiegitura handiekin lotzen diren jardun batzuek, hala nola proposatutako saihezbide berriak, dimentsio fisiko handia ez ezik, Gipuzkoa osoko lurraldean eragina dutenez gero, guztiz gainditzen dute Berastegiko Udalaren eskumen-ahalmena eta aurrekontu-ahalmena.

Hori dela eta, Berastegiko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Estatuaren edo beste organismo publiko batzuen administrazio-eskumenen koordinazioaren isla izango da Plan Orokorra. Hortaz, edozein unetan dagokion administrazioak egin beharreko inbertsio-ahalmenera berehala egokitzen dela ziurtatzeko behar besteko malgutasunez formulatu beharko da, betiere legez planifika daitekeen baina ekonomikoki ziurgabea eta, batzuetan, aurreikusezina den agertoki baten barruan.

Plan Orokorrean jasotako Sistema Orokorraren jardura nagusiak edo azpiegiturako eta zuzkidurako esku-hartze garrantzitsuak eta hauek Udalaren ekimen publikora atxikitzeak ondorengo taulan adierazten dira.

Sistema orokorrak eta toki-ekipamenduak. Kontrata bidezko gauzatze-aurrekontua.



- 3.1. Komunikazioen azpiegitura-sistema orokorrak.
 - Saihesbidea gauzatzeko behar diren lursailak eskuratzea: 460.000€, (2) eta (1) Berastegiko Udalari dagokio administrazio publikoak koordinatzeko ekimena hartzea, hain zuzen ere, proiektua idazteko prozesua abian jarri eta saihesbidea egiten Plan Orokor honen indarraldian hasteko.
 - 2. HE Bekobelazera atxiki gabeko herriko sarrerako biribilgunea egitea. : 105.000 € (2)
 - Egungo zeharbidean espaloiak egitea: 99.500 € (3)
 - 2. HE Bekobelazen jasotako sistema orokorreko aparkalekua egitea: 123.200 € (3)
- 3.2.- Berdeguneen sistema orokorrak
 - Elduairen ibaiaren ondoko pasealekua gauzatzea (ELSO): 943.300 € (3)
- 3.3. Ekipamenduko sistema orokorrak.
 - Polikiroldegi berria gauzatzea (KESO): 1.350.000,00 € (1) eta (3)
 - Zerbitzuen ekipamendu berria gauzatzea (ZESO): 240.000,00 € (3)
- 3.6. Planaren ingurumenaren gaineko inpaktua arintzeko neurri zuzentzaileak.
 - Artaleku eremuko lurzoruaren kalitatearen ikerketa eta lurzoruaren deskontaminazioa: 1.825.000,00 € (1) eta (3)
Lurzatiaren jabea den aldetik, Berastegiko Udalari dagokio lurzoruaren kalitatea ikertzeko proiektua idazteko tramitea abian jartzea, administrazio publikoekin koordinatzea lurzoruaren kalitatea ikertzeko proiektua idazten hasteko eta, ondoren, lurzoria deskontaminatzeko.

(1) Arloko Administrazio eskudunari dagokio.

(2) Udalaren programazioaren eta esparruaren beharren arabera.

(3) Udalaren programazioaren arabera.

Plan Orokorraren inbertsioen gutxi gorabeherako kopurua 5.146.000 eurokoa da, sistema orokorrak gauzatzeko eta Planaren ingurumenaren gaineko inpaktuak arintzera bideratutako neurri zuzentzaileak betetzeko.

Inbertsio hauen kopuru globala, guztira 5.146.000 eurotan kalkulatu dena, onargarria da Berastegiko Udalaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta, Plan Orokorra garatzeko 8 urteko inbertsio-epe baterako.

Instalazio, zerbitzu, konexio eta hartune orokorretako azpiegiturak ezartzeko kostuak eremu bakoitzaren urbanizazio-kargatzat jotzen dira. Eta hura abiarazteari eta emaitzazko zerbitzuak eskaintzeari dagokienean, zati bat Udalak hartuko du bere gain, Udalarentzat onargarria den aldetik batez ere kontuan hartuta Uren Partzuergoak berari dagozkion gastuak ordainduko dituela.

**V. UDAL ADMINISTRAZIOAREN AHALMEN EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO ETORKIZUNEKO ANALISIA.**

2001-2008 aurreko aldiaren batez besteko inbertsio bera ezarriz (579.624,42 euro/urte), eta inbertsioaren urteko programazioa kontuan hartuta, gauzatutako obrarekiko inbertsioaren parametroak honako modu honetan ezarri ahal izango dira eurotan:

BERASTEGIKO PLAN OROKORRA BERRAZTERTZEKO ALDIA (2010-2018).

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<i>Inbertsio-ahalmena</i>	579.624	579.624	579.624	579.624	579.624	579.624	579.624	579.624	579.624
<i>Planaren jardueren ondorioz gauzatu beharreko obrak</i>	571.778	571.778	571.778	571.778	571.778	571.778	571.778	571.778	571.778

Hurrengo zikloko (2010-2018) sarrera arrunten aurreikuspena ikusita, Udalak behar dituen sarrera gutzietan dagokionez ez du defizitrik ekarriko.

Nolanahi ere, udalaren programazio ekonomikoaren bideragarritasuna egiaztatuta geratzen da, eta horri esker izango den aurrekontu-marjinarekin Berastegiko Udalak urbanizazio- eta azpiegitura-proiektuak gauzatzeko beste gastu batzuei ere egin ahal izango die aurre edo ekonomikoki saihasbidea gauzatzen parte hartu ahal izango du.

Donostia, 2012ko urria

BUPetako Ingeniaria:

Arkitektoak:

Abokatuak:

A. Jaime

M. Muñagorri

A. Urteaga

I. Amenabar